



**EGOITZA
ARTISTIKOEN
PROGRAMA
2023**

deialdia: 2023/01/10

/EUS/

Artista eta sortzaileen lanari babesa emateko, **egoitza artistikoen programari jarraipena emango diogu** KARMELAn, espazio okupatu eta autogestionatuan, Bilboko Santutxu auzotik. Programa honekin “Sorkuntza Tailerra” espazioaren erabilera lagatuko diogu sortzaile bakarrari edo kolektibo txiki bati (gehien jota boskotea). 2023 urterako deialdi honetan, **egoitza-aldia 12 hilabetekoa** da.

Deialdia 2023ko urtarrilaren 10era arte egongo da irekita. Parte hartzeko idatzi liburutegia@karmela.eus helbidera.

Iniziatiba honek **topaketa eta elkarlan-gune bat izan nahi du herri mugimenduen, proiektu artistikoen eta horien sortzaileen artean**. Sorkuntzari eta esperimentazioari ireki nahi diogu KARMELA; saretze eta ikaskuntza prozesuak martxan jartzeko. Hortaz, egoitza artistikoen programa honek helburu bikoitza dauka: **sorkuntza artistiko kritikoari** lekua egitea; eta **aliantzak eraikitzea** sortzaile eta herri mugimenduen artean.

Ibilbidearen hasieran zein aurrerago egonik ere, edozein sortzailerentzako espazio bat izan nahi du Egoitza honek. Batez ere, diziplinak-diziplina, **proiektu kritiko eta eraldatzaileei** egin nahi diegu lekua.

ESKAINTZEN DUGUNA

Espazio okupatu eta autogestionatua izanik, eskaintzen duguna, batez ere, espazioaren erabilera librea da. Gela bat norberarena: "Sorkuntza Tailerra", Karmelako Kontrakultur Gunean. Egoitza artistikoa sortzaile edo kolektibo bakarrari egokituko zaio eta Sorkuntza Tailerra era egonkorrean darabilten bi sortzailerekin elkarbanatuko du.

- 30 bat m2 ditu Sorkuntza Tailerrak eraikuntzaren izkina hartzen dituen bi bentanal zabal, lan-mahaiak eta aulkiak, eta materiala gordetzeko apalak;
- Artista edo kolektibo egoiliarak Karmelako eta Sorkuntza Tailerrako sarbide librea izango du haren proiektu artistikoa garatzeko goizeko 8:00tik gaueko 22:00ak bitartean;
- Sarbide horrek wifiaren erabilera, argindarra eta bainugelaren erabilera ahalbidetzen du Tailerrean bertan;
- Horrez gain, Karmelako beste espazioak ere erabili ahalko ditu egoiliarrak (zinema, serigrafia tailerra eta jantokia kasu; eta baita proiektorea eta pantailak);
- Bukatzeko, proiektua garatzeko bidelagun kritiko, kontzeptual eta materialerako, eta proiektuaren zabalkuntzarako laguntza jasoko du Karmelako lantalde ezberdinetatik.

NORENTZAT

Deialdia proiektu artistiko bat hasiko duten edota jada batean diharduten norbanakoei eta kolektiboei dago bideratuta. Proiektu artistikoa edozein diziplinakoa izan daiteke. Gainera, hautagaiak herri mugimenduen parte izan edo aldeko sentsibilitatea erakutsi behar du eta Karmelaren parte izateko irrika erakutsi, behintzat egonaldiak iraungo dituen urte beterako. Horrez gain, egoiliarrak euskaraz jakitea hobetsiko dugu edo behintzat euskaraz gertatzen den harremanaren oztopo ez izatea. Edonongo eta edonolako egoiliarrak aurkeztu daitezke.

AURKEZTU BEHARREKOA

2023ko urtarrilaren 10a baino lehenago, bidali hurrengo PDF formatoan

liburutegia@karmela.eus helbidera “Egoitza artistikoen programa 2023” idatzita gaian:

1. Kontaktatzeko **datu pertsonalak**, izena, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, eta web orria
2. Lantzen ari den edo landu nahi duen proiektu artistikoaren **azalpena**, helburuak eta motibazioak argi utzita (gehienez 250 hitz)
3. **Egutegia**; proiektua, gutxi gora behera nola garatuko den azalduko duen testua. Egoitzak irauten dituen 12 hilabeteetan zehar egingo den lanarekin.
4. Hautagaiaren ibilbidea eta **biografia laburra** azalduko duen testua, herri mugimenduenganako lotura edota aldeko sentsibiltatea argi utziko duena (gehienez 250 hitz)

AUKERAKETA PROZESUA

Hautagaiak eta proiektuak Karmelako asanblada ezberdinetan baloratuko dira, hurrengo kriterioen arabera:

- Proiektu artistikoaren izaera kritikoa eta jarrera eraldatzailea
- Herri mugimenduenganako lotura edota aldeko sentsibiltatea
- Proiektuaren egingarritasuna Karmelan eta Karmelako azpiegiturekin

BALDINTZAK ETA ITZULERA

- Sortzen den materiala Creative Commons lizentzia edo antzekoren bat erabiliz sortuko da. Guk proposatzen duguna da “Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC 4.0)”, baina sortzaileak besteren bat nahiagoko balu Karmelari proposatzea dauka;
- Egoiliarak lan-espazioak eta karmelako azpiegitura zaindu egingo ditu eta erabilera egokia emago die;
- Egoitza-aldia bukatzean, egoiliarak hasierako egoeran utziko du espazioa

- Egoiliarak izango du material propioa zaintzeko ardura
- Egoitza argitalpen- eta produkzio-lan bati lotuta egonzez gero Karmela aipatu egin beharko da kredituetan
- Egoiliarak egoitza-aldian justifikatu gabe etortzeari utziko balio, Karmela eta egoiliarren arteko elkarlana bertan behera gelditzea ekar dezake.

Hartu eta emanean eraikitzen da Karmelaren komunitatea, eta egoiliarra Karmelaren parte izango denez hurrengo itzulera egingo dio espazioari:

- Bi itzulera bakarra egingo dizkio egoiliarak Karmelari, 12 hilabetetan zehar, bertako asanbladekin zehaztuko direnak;
- Itzuleren adibideak dira, mural bat egitea, antzezlan bat, tailer bat... artistaren diziplinaren arabera, noski aldatu egingo da itzulera;
- Karmela osatzen duen talde orok duen eskubide eta obligazio berberak hartzea (garbiketa txandak, lan egunak...)

Edozein zalantzarekin idatzi liburutegia@karmela.eus helbidera. Ahal bezain laster erantzungo dizugu.

SORKUNTZA TAILERRAREN ARGAZKIAK





